# IRISGARRITASUNA

Irisgarritasun maila, edonork inongo arazorik gabe, objetu bat erabili, edononbaitera sartu, edota zerbitzu batera iristea da, laguntzarik gabe.

Irisgarritasun hau bermatzeko, ezinbestekoa da baldintza guztietako pertsonak kontuan hartzea. Sarbide oztopak kendu beharra daude, hala nola, ezgaitasun fisikoren bat duten pertsonek ere inongo arazorik gabe erabilera egin dezaten.




Etxebizitzetan, koskarik garrantzitsuenak, atarietarako sarreratan edota barruan bertan daude. Maila gutxi izaten dira baina nahikoa izaten dira aulki erabiltzaile bati edota mugikortatsun murriztua duenari autonomia gutxiagotzeko.

Beste oztopo handia, etxebizitzara bertara igotzeko dauden eskailerak izaten dira. Esaterako, oso ohikoa baita hiru edo lau pisutako eraikin batean igogailurik ez izatea.